



HERRI EKIMEN LEGEGILEA (HEL) BABESTEKO ADIERAZPENA, PENTSIOAK OSATZEKO EUSKAL SISTEMA BAT EZARTZEKO

MANIFIESTO DE APOYO A LA INICIATIVA LEGISLATIVA POPULAR (ILP) PARA ESTABLECER UN SISTEMA VASCO DE COMPLEMENTO DE PENSIONES

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak izapidetzeko onartu du Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua Pentsioak Osatzeko Euskal Sistema bat ezartzeko aurkeztutako HEL, eta atea ireki da EHPMaren aldarrikapen historikoa, 14 ordainsaritan 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, lege bihur dadin.

Behean sinatzen dugunok zera adierazten dugu:

Erabateko bidegabekeria iruditzen zaigu milaka pentsiodunek, lan-bizitza oso baten amaieran, gutxieneko diru-sarrera nahikorik ez izatea beren mugikortasun- eta tenperatura-premietara egokitutako etxebizitza eroso bat eskuratzeko, eta oinarrizko gizarte-eskubideak bermatuta ez izatea, hala nola osasunerako eskubidea, elikadura osasuntsua izateko eskubidea eta mendekotasunaren arretarako zerbitzu egokiak izateko eskubidea.

Urteetan zehar, milaka milioi desberatu dira helburu desberdinetarako kotizazioetatik pentsio nahikoak bermatzeko erabili beharrean, eta gezurra esan da Pentsio Sistema Publikoaren iraunkortasunari buruz. Horrela, justifikatzen saiatu dira pentsioak eskuratzeko luzamenduak eta zenbatekoa, mugatu eta murriztu duten legeen ezarpena. Horren ondorioz, gero eta gutxiago dira bizitza-baldintza duinak lortzeko aukerak.

Neurri horiek guztiek diru sarrera gutxien duten pertsoneri eragin diete bereziki, gehienak emakumeak.

Admitida a trámite por la Mesa del Parlamento Vasco la ILP presentada por el Movimiento Pensionista de Euskal Herria, para establecer un Sistema Vasco de Complemento de Pensiones, se abre la puerta para que la reivindicación histórica del MPEH, de una pensión mínima de 1.080 euros en 14 pagas se convierta en ley.

Las personas abajo firmantes:

Consideramos una radical injusticia que miles de pensionistas, al final de toda una vida de trabajo, carezcan de unos ingresos mínimos suficientes que les permita acceder a una vivienda confortable adecuada a sus necesidades de movilidad y temperatura, y no tengan garantizados derechos sociales fundamentales como el derecho a la salud, a una alimentación sana y a unos servicios de atención a la dependencia adecuados.

Durante años se han desviado miles de millones de las cotizaciones para fines distintos a los de garantizar unas pensiones suficientes, y se ha mentido sobre la sostenibilidad del Sistema Público de Pensiones. Se ha intentado justificar, así, la implantación de leyes que han retrasado y restringido y recordado el acceso y la cuantía de las pensiones. Como consecuencia cada vez más personas ven reducidas sus posibilidades de acceder a unas condiciones de vida dignas.

Todas estas medidas han afectado especialmente a las personas con menos ingresos, en su mayoría mujeres.

Emakumeek lantokietan jasaten duten diskriminazioak eta prekaritateak, langabezia-tasa handiagoak, lanaldi partzialeko kontratuen proportzio handiagoak eta aitortu eta ordaindu ez diren zaintza-lanetan duten kokapenak pentsiorik baxuenak eskuratzea eragin dute; gutxieneko osagarriak behar dituzten kotizaziopeko pentsioak, 500 € pasatxoko kotizazio gabeko pentsioak (%70ean jasotzen dituzte emakumeek) edo argi eta garbi nahikotasun mailara heltzen ez diren alarguntza-pentsioak.

Bidegabekeria hori konpontzea premiazkoa bezain ezinbestekoa da, eta gutxieneko pentsio duina bermatzea da biderik zuzenena eta eraginkorrena.

Horregatik guztiagatik, lege-ekimen hau babesten dugu, zahartzaroan duintasunez bizitzeko diru-sarrera egokiagoak bermatzen baititu, gutxieneko pentsioa Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatuz, hirurogei urtetik gorako pentsiodun bakoitzari beharrezko osagarria esleituz bere bizikidetzaren harreman direnak direla, eta eskumena duen administrazioak ofizios aplikatuz, horretarako behar den informazio guztia baitu.

EAEko Gobernuak eta Legebiltzarak erantzukizun hori bere gain hartzea babesten dugu. Egin dezake horretarako nahikoa baliabide ekonomiko eta eskumen dituelako.

Gizarte zibilari dei egiten diogu justua, premiazkoa eta beharrezkoa den HEL hau sina eta babes dezan.

[HELren testua eskuragarri duzue web orri honetan.](http://ehpentsiodunak.eus)

web: ehpentsiodunak.eus

2024ko zaroaren 21a

La discriminación y precariedad de la mujer en los centros de trabajo, su mayor tasa de desempleo, su mayor proporción de contratos a tiempo parcial y su ubicación en tareas de cuidados que ni han sido reconocidas ni retribuidas, han determinado su acceso a las pensiones más bajas; a pensiones contributivas que necesitan complementos a mínimos, a pensiones no contributivas de poco más de 500 €, percibidas en un 70% por mujeres, o a pensiones de viudedad claramente insuficientes.

Es tan urgente como imprescindible reparar esta injusticia y garantizar una pensión mínima digna es el camino más directo y eficaz.

Por todo ello, apoyamos esta Iniciativa Legislativa que garantiza unos ingresos suficientes para vivir dignamente en la vejez, equiparando la pensión mínima al Salario Mínimo Interprofesional, asignando el complemento necesario a cada persona pensionista mayor de sesenta años al margen de sus relaciones de convivencia, y aplicándolo de oficio por la administración competente dado que dispone de toda la información necesaria para ello.

Apoyamos que el Gobierno y Parlamento de la CAV asuma esta responsabilidad. Lo puede hacer porque tiene recursos económicos y competencias suficientes para ello.

Hacemos un llamamiento a la sociedad civil para que firme y apoye esta ILP que es justa, urgente, y necesaria.

[El texto íntegro de la ILP se encuentra disponible en esta:](http://ehpentsiodunak.eus)

web: ehpentsiodunak.eus

21 de noviembre de 2024